

**ZUZENKO EKINTZAK: PENTSAMENDUAN ERAGIN, PORTAERA ALDATZEKO****ONDORIO NAGUSIAK**

Dinamizatzaileak: Leire Urra (Emun), Arantxa Zabala (Errenteriako Udaleko hizkuntza normalizatzailea)

[Bideoa](#): Urrate Etxaburu (Emun)

- Zuzeneko bidea erabili den esperientziak partekatu ditugu lehenik. Hona hemen aipatu diren esperientzien zerrenda:

“Ez Tau Musik” (Segurako aterpetxean): hausnarketa saioak konpromisoekin lotuta.
Abesti bat sortzea herritarrekin (Durangon)
Eskolaz kanpoko kirol jardueretako monitoreei motibazio ikastaroa
Aisialdi antolatua eskaini
Gurasoentzako euskarazko jolasen tailerrak. “Parketarrak”
Auzo elkartean asanbladak egin
Mintzalaguna
Hitzaldiak
Konpromiso kanpainak (xede taldeka)
Hausnarketa saioak (xede taldeka, banaka/taldeka)
Bultzatzaileak formatu, indartu (lidergoa)
Elbakartasunaren bidea hartu
Langileen ahozko harremanak euskalduntzeko (hizkuntza ohitura aldatzeko) gogoeta saioak
“Zergatik ez?” hausnarketarako tailerrak
TELP tailerra (udaleko ordezkari politikoentzat egokitua)
Hitzun neurketak (eskolan gelaka)
Euskarazko udalekuak

Erabilera adosteko gonbidapena luzatzea
TELP tailerra
Jolas-ordu interaktiboak
Euskararen balio instrumentala profil profesionalaren ezinbesteko gaitasun gisa
Banaiz bagara tailerra
Materialgintza ikastaroak
Bilerak euskara hutsean (guraso bilerak)
Guraso koadriletako lider naturalak identifikatu eta koadrilako hizkuntza ohituretan eragiteko estrategiak eman
Taldearen espektatibak adostu
Mintza praktika, kafea euskaraz
Hizkuntza helburuak ezarri
Kuadrillategi
Motibazio tailerrak: DBHn, guraso, irakasle, erdaldun motibatuak
Jolasen txokoak
Familientzako barnetegiak
Zuzeneko motibazioan eraginda, konpromisoak eskuratu. Udalekin. Andoaingo udaltzaingoa. Batzuegan kontzientzia indartu, berpiztu.
Errefortzuak etorkinekin
Herrian parte-hartze eta hausnarketa prozesu bat martxan jarri. Herritarrak euskararen inguruan hitz egiten jarri: egoeraz ohartarazi, aldaketa beharra ikusi.
Irakasle eta ikasleekin hausnarketa saioak
Hausnarketa saioak: lidergoa, TELP, esatetik egitera
Mintzalaguna /berbalaguna
Aldahitz
Euskal giroko barnetegiak

Babesleak:



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián  
Euskara Zerbitzua

donostiakultura.com

**STM**  
San Telmo Museoa

Hizlariaren konektatzeko gaitasuna
Teknikariaren tinkotasuna + goxotasuna
Gaiaren inguruan hitz egiteko / iritzia emateko aukera ematea
TELP ikastaroak (Ferran Suai): asertibitatea, psikologiaren ildotik hizkuntza gatazka egoerak nola kudeatu
Harrera-hizkuntzaren gaineko hausnarketa saioa
Euskararen egunean hitzaldiak: Jon Sarasua, Jon Maia, Kike AMonarriz, herriko pertsona prestigiotsuak...
Udalekuetan hizkuntza pautak era ludikotik
Erabileraren inguruko hausnarketa saioa
Lekeitioko egoera linguistikoa aldatzeko arnasmunea
Paisaia linguistiko elebiduna

- Ondoren, esperientzia horietako arrakastarako gakoez aritu gara:

**Bizipenak konpartitzeko guneak sortzea eta jendeari entzutea** ezinbestekoa da. Ezagutzen dugun errealitatearen gainean berba egitea da abiapuntua. Praktikaren gaineko hausnarketak egiteak, praktika horretan eragina badu. Epe laburrean bai behintzat. Ez da nahikoa, zentzua (arrazoiak), erreferentziak, erabakia (akordioa) eta trebatze-lana ere behar dira. Biluzten lagundu behar diegu partaideei. Kontuan hartu beharreko osagaiak:

- Errespetua, besteen iritzien aurrean nahiz eta ez konpartitu. A
  - Askatasuna pentsatzen duena esateko.
  - Gertutasuna.
  - Maitasunez inguratu eta esperientzia eta zapora ona utzi.
- Hala ere, norberak nahi izan behar du (prestutasuna). Ez gaude ohituta hausnarketak egitera, horretarako giroa sortu behar da.

**Norbanakotik taldera:** hausnarketa indibiduala egitea baino talde gisa hausnartzea eraginkorragoa da. Hizkuntzaren hautua ez da indibiduala izaten, taldearena baizik. Taldea da lan egiteko gakoa., horretarako taldea trinkotu eta indartu behar da. Partaideak eremu berekoak izatea arrakastarako beste gako bat da.

Hausnarketak **edozein hartzaileekin** egin daitezke. Helburu desberdinekin: masa kritikoa (kontzientziadunak) indartzeko, kontrakoak neutralizatzeko... Helburuaren eta hartzailearen arabera edukia; hots, diskurtsoa egokituta.

<p><b>Haurrekin</b> hausnarketak gaitasunaren arabera egin daitezke, hainbatetan adina oztopo izan daitekeen arren. Eremu hauetan monitoreak motibatzea da gakoa. Haurrengan eragiteko zailtasunen artean dago kanpo estimuluak gaztelaniaz zein ingelesez jasotzen dituztela.</p>
<p><b>Ikuspegi baikorra</b> transmititzean emaitzak hobek dira. Horrekin batera, dinamika parte hartzaileak egitea emankorragoa.</p>
<p>Gogoeta saioetan eredugarritasuna, lidergoa, errekonozimendua, etab. lantzea.</p>
<p><b>Liderrak</b> identifikatu eta hauengan eragiteak talde osoan aldaketa bultzatzeko.</p>
<p>Zeharkako motibazio ekintza bat hartzaileekin landuz gero, zuzeneko ekintza bihurtu daiteke. Horrek partaide sentiarazteko bide ematen baitu.</p>
<p>Kontuan hartzeko beste puntu batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Komunikazio argia eta zehatza</li> <li>-Helburu garbiak</li> <li>-Gidari bat egotea, planifikazioa</li> <li>- Goitik eragitea garrantzitsua da. Arduradunen babesa behar da, borondate politikoa</li> <li>- Ekintza erakargarriak egitea</li> <li>- Hizkuntza gaitasun guztiak kontuan hartzea</li> <li>-...</li> </ul>